



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Estatu mailako estreinaldia izango dugu Arriaga Antzokian: **OIHANEKO LIBURUA berriz irudikatua**, Akram Khan koreografo handiaren lan berriarena

- Akram Khan-en dantza talde harrigarriak Rudyard Kipling-en familiako klasikoaren berrirakurketa hau interpretatzen du, Mowgli-ren bidaia errefuxiatu klimatiko baten begietatik berrasmatuz.
- Jatorrizko partitura bat, nazioarteko hamar dantzari eta puntako animazio eta efektu bisualak... *Jungle Book reimaged* ikuskizun benetan ederra da, zeinak agertokia mundu magiko bihurtzen baitu.
- Arriaga Antzokian izango dugu muntaia honen Estatu mailako estreinaldia, eta bi emanaldi egongo dira: ekainaren 3an, ostiralean, 19:30ean eta 4an, larunbatean, 19:00etan. Bilbon ikusi ondoren, Madril izango da emanaldia eskainiko duen penintsulako leku bakarra.

**Bilbon, 2022ko maiatzaren 30ean.** Bilbok eta Arriaga Antzokiak dantzaren nazioarteko zirkuituan duten kokapen bikaina egiaztatuko dute beste behin ere asteburu honetan, zehazki, ekainaren 3an, ostiralean, eta 4an, larunbatean (19:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren) egingo den Estatu mailako estreinaldiarekin. **Akram Khan Companyren** muntaia berria izango dugu Antzokian: *Jungle Book reimaged* edo *Oihaneko Liburua berriz irudikatua*.

**Akram Khan** koreografo ospetsuak, ezbaierik gabe mundu mailako dantzan famatua denak, dantza-pieza benetan ederra sortu du, bi ekitalditan banatua eta antzerki-elementuekin, eta Rudyard Kipling-en *Oihaneko Liburua* familiako klasiko ahaztezin eta maitatuaren jatorrizko istorioan oinarrituz. Berrirakurketa bikain honetan, Akramek eta bere taldeak Mowgliren bidaia errefuxiatu klimatiko baten begietatik berrasmatzen dute.

Ikuskizuna 10 urtetik gorako ikusleen belaunaldi guztientzat gomendatuta dago, eta ikuskizun handien elementu guztiak ditu: jatorrizko partitura bat, nazioarteko hamar dantzari, animazioak, azken belaunaldiko efektu bisualak eta, jakina, Akram Khanen koreografia dotore eta aldi berean indartsua, haren zuzendaritza-lan intuitibo eta irudimentsuaz gain.

*Oihaneko Liburua berriz irudikatua*-k lehen mailako sormen taldea biltzen du, Tariq Jordanen gidioa, Sharon Clark-en dramaturgia eta Jocelyn Pook-en jatorrizko musika. Gareth Fry-ren soinu-diseinuarekin, Michael Hullsen argiztapenarekin, Miriam Buether-en eszenografia bisualarekin, YeastCulture-ren bideo diseinuarekin eta animazioarekin, teknologia bisualak eszenatokia gaur egungo mitoetan murgiltzen den mundu magiko batean bihurtuko du. Emaizta iistorio ezinbesteko eta sinesgarri bat da,

besteekin parte hartzeko eta lotzeko gure behar intrintsekoari buruzkoa, eta zera azpimarratzen duena: gure natur munduarekin konektatzearen eta bihotzez errespetatzearen garrantzia.

### **Sinopsia**

Etorkizun hurbileko mundu batean, familia bat hautsi egiten da klima aldaketaren eraginez suntsituta jaioterritik ihesi doan bitartean. Hiri moderno basamortu batera bakarrik iritsita, eta animalia basatiak kaleak bereak direla aldarrikatuz, mutilak laster aurkituko ditu ustekabeko aliatuak oihan berri bitxi honetan.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 13,50 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# **Akram Khan Company: Jungle Book reimagined (OIHANEKO LIBURUA berriro irudikatua)**

Zuzendaria/koreografoa: **Akram Khan**

Sortzaile elkartua/Entrenatzailea: **Mavin Khoo**

Idazlea: **Tariq Jordan**

Dramaturgiako aholkularia: **Sharon Clark R Bazzarin**

Konpositorea: **Jocelyn Pook**

Soinuaren diseinatzailea: **Gareth Fry**

Argiztapenaren diseinatzailea: **Michael Hulls**

Agertoki bisualaren diseinatzailea: **Miriam Buether**

Arte-zuzendaria eta animazio-zuzendaria: **Adam Smith** (YeastCulture)

Produktorea/Bideo-diseinuko zuzendaria: **Nick Hillel** (YeastCulture)

Rotoscope/Animazio-artista: **Naaman Azhari, Natasza Cetner eta Edson**

Entsegu-zuzendaria: **Nicky Henshall, Andrew Pan, Angela Towler**

Dantzariak: **Lucia Chocarro, Tom Davis-Dunn, Thomasin Gülgeç, Max Revell, Matthew Sandiford, Pui Yung Shum, Fukiko Takase, Holly Vallis, Vanessa Vince-Pang, Luke Watson, Jan Mikaela Villanueva** (guest artist)

Produktore exekutiboa: **Farooq Chaudhry**

Zuzendari exekutiboa: **Isabel Tamen**

Proiektuaren kudeatzailea: **Mashitah Omar**

Koproduzitua: **Curve Leicester, Birmingham Hippodrome, Edinburgh International Festival, Esplanade – Theatres on the Bay Singapore, Festspielhaus St. Pölten, Internationaal Theater Amsterdam, Maison de la Danse / Pôle européen de création – Lyon, National Arts Centre – Canada, New Vision Arts Festival – Hong Kong, Orsolina28, Pfalzbau Bühnen – Theater im Pfalzbau Ludwigshafen, Romaeuropa Festival, Sadler's Wells London, Stanford Live / Stanford University, Teatros del Canal – Madrid, théâtre de Caen, Théâtre de la Ville – Paris**  
**Garfield Weston Foundation, Genesis Foundation and Angela Bernstein CBE-ren laguntzarekin**  
Laguntzailea: **Arts Council England**

Ikuskizuna ingelesezko elkarrizketekin, eta narrazioaren zatiak gaztelaniaz  
proiektatuko dira.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)